



Arartekoaren 2023IR-1517-23 Ebazpena, 2023ko abenduaren 19koa. Horren bidez, bukatutzat jotzen du COVITEK, egindako kexarekin lotutako jarduketa; horren bidez, salatu zuten Gernikan Juan Erezuma eta Juan Carlos Monteagudo ETAko kideak omentzeko plaka bat jarri izana, eta plaka kentzeko eskatu zuten.

### Aurrekariak

1. 2023ko maiatzaren 30ean Arartekoak COVITEren (Colectivo de Víctimas del Terrorismo/Terrorismoaren Biktimen Kolektiboa), kexa idazki bat jaso zuen. Horren bidez, erakundeari esku hartzeko eskatu zitzaion, Gernikan ETA Juan Erezuma eta Juan Carlos Monteagudo ETAko kideak omentzeko plaka bat jarri zutelako, eta elkarteak kentzea nahi zuelako.

Espedienteko argazkien arabera, leku horretan bertan (Astra aparkalekuan, babesleku antiaereoaren eta Astra kultur etxearen ondoan, Gernikako Ibarra kaleko zenbakirik gabean) Latinoamerikan ezkerreko prozesuen aktibista izan zen Concepción Arana omentzeko beste plaka bat ere bazegoen.

Horretaz gain, omenaldi publikoa antolatu zuten plakak dauden lekuan 2023ko apirilaren 22an, eta COVITEren arabera, terrorismoaren biktimen eta beraien senideen artean haserre eta ezinegon handia sortu zuen horrek.

2. 2023ko uztailaren 10ean Arartekoak kexaren muinari buruzko informazioa eskatu zion Gernikako Udalari.
3. Bi errekerimendu egin eta gero, Arartekoak eraginpeko administrazioaren erantzun txostena jaso zuen 2023ko azaroaren 6an.

Lehenengo txosten horretan, Gernikako Udalak hauxe esan zuen: *“ez du jakin udalerrian omenaldi plaka bat dagoenik, helarazi diguten kexan adierazitakoa bezalakoa [...] Erakunde honi hasieran bidalitako lankidetzeta-eskaeraren idazkiarekin batera COVITEk salatutako ustezko plakari buruzko argazkirik aurkeztu ez zenez, eta plakaren kokapenari buruzko informaziorik ere eman ez zenez”*.

4. Arartekoak bigarren informazio eskaera bidali zuen, eta azaldu zuen bai hasierako informazio eskaera eta bai hurrengo bi errekerimenduak ere zegokien euskarri grafikoarekin bidali zirela (testuan adierazi ziren eta esteka elektronikoaren bitartez kontsulta zitezkeen), eta hala, oso erraza zela kexaren hizpide izan ziren plakak kokatzea. Halaber, Arartekoak Gernikako Udalari jakinarazi zion erakundeko langileak bertara joan zirela 2023ko urriaren 5ean, bertatik bertara ikusteko plakek leku horretan jarrita jarraitzen zutela. Hala, Arartekoak egun horretako argazki eguneratua bidali zuen, eta bertan argi eta garbi ikusten dira bi plakak Astra aparkalekuko zelaiko faroletako baten



hormigoizko oinarrian jarrita, babesleku antiaereoaren eta Astra kultur etxearen ondoan, Gernikako Ibarra kaleko zenbakirik gabean.

5. 2023ko azaroaren 13an Arartekoak udal horren erantzun txostena jaso zuen, eta hauxe zioen *“Udalerrian omenaldi-plaka batzuk kentzeko errekerimenduari dagokionez (Erref.: 1517/2023/QC) eta zuekin izandako telefono-elkarrizketen ondoren, adierazi behar da udaltzainak Astrako gunera bertaratu direla, eta plaka horiek zeudela egiatzatu ondoren, ezabatu egin dituztela, udaltzaingoaren arduradunak azaroaren 7an egindako argazki-txostenean jasotzen den bezala. Txosten hori eransten da”*. Udalak agiri grafikoa erantsi zuen, eta bertan ikusten da lekua aurretik eta ondoren nola zegoen (hau da, plakak kendu eta gero).

Emandako informazioari erreparatuta, Arartekoak uste du egokia dela gogoeta hauek egitea.

### Gogoetak

1. Euskal Autonomia Erkidegoko herrietan biktimen duintasunaren kontra egiten duten pintadak, kartelak eta monolitoak egoteak Arartekoa kezkatzen jarraitzen du; izan ere, biktimen funtsezko eskubideen kontra doa. Horrek biktimizazio eta min bikoitza eragiten die biktima horiei eta beraien senideei, eta gizarte gisa, EAEn bizikidetzat hausten zuen eta min handia, heriotzak, zauriak eta ordainarazpenak gertatu ziren antzinako indarkeria garaietara garamatza.
2. Biktimen duintasun eskubidea arautzen duen Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteari buruzko ekainaren 19ko 4/2008 Legearen 4.b) artikuluan hauxe jasotzen da: *“Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoek biktimak haien eskubideak errespetatuta tratatu ditzaten zainduko dute. Horretarako: b) Neurri egokiak hartuko dituzte biktimen eta haien familiakoen segurtasuna, ongizate fisiko eta psikologikoa eta intimitatea bermatzeko, eta, bereziki, jendaurreko zenbait ekitaldi prebenitzeko eta ekiditeko, hala nola, biktimen eta haien familiakoen mespretxua, umiliazioa edo izena galtzea dakarten ekitaldiak, terrorismoa goren dutenak edo terroristei omenaldia egiteko edo jendaurreko sariak emateko antolatzen direnak, eta zehazki aurka egingo diete ezaugarri horiek dituzten pintaketei eta kartelei, eta, hala dagokionean, arau-hauste penala ekar dezaketen ekitaldiak ikertuko dituzte, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, eskubide horren defentsarako, herri-akzioa baliatzeko aukera zabalik utzita.”*

Gai horri dagokionez, gogorazi beharra dago sakonki heldu zitzaizola 2009an Eusko Legebiltzarrarentzat egindako txosten berezi honetan: Euskadin terrorismoaren biktimei erakundeek emandako arreta.

Txosten horretan adierazi genuenez, duela hamarkada bat baino gehiago Eusko Legebiltzarrak 2007ko urriaren 5 eta 17an egindako osoko bilkuran ebazpen batzuk onetsi zituen terrorismoaren biktimen gainean hartutako erabakiak



betetzeari dagokionez. Zehatzago, hamaikagarren ebazpenak ondoko hauxe adierazten du: "Eusko Legebiltzarrak udalei eskatzen die areagotu ditzatela gure herrietako kale eta plazetatik terrorismoaren biktimak iraintzen eta umiliatzen dituzten pintadak eta kartelak desagerrarazteko ahaleginak; horretarako, Eusko Jaurlaritzaren laguntza eskatu ahal izango dute..."

Zehazki, Arartekoak bere iritzia eman zuen Eusko Legebiltzarrera bidalitako 2020ko urteko txostenean, Hernaniko udalerrian ETAko kide batzuen izen-abizenak eta heriotza-data jasotzen dituzten monolito batzuei lotuta. Arartekoak esan zuen monolito horiek biktimarioak omentzen zituztela eta biktimen duintasunaren aurka egiten zutela, Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko ekainaren 19ko 4/2008 Legearen 4.b) artikulua araberako. Erakunde honek azpimarratu zuen udalerriko bizilagun horiek ez dutela bestelako meritu publikorik egin beraien omenez leku publiko batean monolito bat jartzeko eta, horrenbestez, monolitoak bakarrik ETAko kideak izatea goraiatzeko zuela.

Horregatik guztiatik, Arartekoak honakoak ezarri ditu

### Ondorioak

1. Juan Erezuma eta Juan Carlos Monteagudo ETAko kideen omenezko plakak bide publikoan jartzea Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko ekainaren 19ko 4/2008 Legean araututako biktimen eta beraien senideen duintasun eskubidearen aurkakoa da, eta Eusko Legebiltzarrak esandakoaren araberako, administrazioaren jarduketara okerra da.
2. Kasu honetan, oker egon zen administrazioak ez jardutea. Hala ere, behar bezala zuzendu zuten. Horrenbestez, Arartekoak bere esku-hartzea bukatu eta aipatutako espedientea itxi eta artxibatu du, kexaren elkarte titularrak eskatu ahal izango dituen jarduketak gorabehera.